

## **MOZIO ARRUNTA,**

### **OSAKIDETZAK DONOSTIAN IRAGARRITAKO MURRIZKETAK DIRELA ETA**

Juan Karlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Osakidetzak Donostian 2023ko abenduan eta gabonetan egingo dituen murrizketak direla eta.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Azaroaren bukaeran Osakidetzak publiko egin du abenduan eta gabonetan murrizketak egingo dituela Donostian eskaintzen dituen zerbitzuetan. Zehatz-mehatz, ondorengo osasun-zentroetan ordutegiak murriztuko dira:

- Aieteko Osasun Zentroan
- Bidebietako Osasun Zentroan
- Parte Zaharra Osasun Zentroa
- Gros Osasun Zentroa

Zentro hauetan itxiera-ordua aurreratu egingo da, hiru edo bi ordu; ohiko arratsaldeko zortzietatik arratsaldeko bostetara, edo ohiko arratsaldeko bostetatik arratsaldeko hiruetara.

Honi guztiari gehitu behar zaizkio Bengoetxea kaleko PACeko murrizketak, egun batzuetan ez baita medikurik egoten guardia osoan. Murrizketa hori ez da mugatzen egun hauetara, urtean zehar ohikoa delako.

Osakidetzako arduradunek diote aurreko urteetan ere gauza bera egin zutela eta arrazoia medikuen falta dela. Baina hori ez da horrela, aurten murrizketak abenduaren hasieratik direlako eta ez gabonetan soilik. Gainera, arrazoi hori onartezina da, ontzat ematen delako mediku falta izatea data jakin batzuetan eta ez delako planteatzen horri aurre nola egin. EH Bildutik berriro diogu murrizketa horiek zerikusi handiagoa dutela Osakidetzak azken urteetan hartutako zoritxarreko norabidearekin, EAEko osasun-sistema publikoa ahultzera daramanarekin.

Horren ondorio nagusia da donostiarrei eskaintzen zaien osasun arretaren kalitatea kaltetzea, eta donostiar guztien ordezkari gisa, horren aurrean posizionatu beharra daukagulako aurkezten dugu mozioa hau.

## **MOZIOA ARRUNTA**

1.- Donostiako Udaltzaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari ez dezala murrizketarik egin Osakidetzaren Aiete, Gros, Alde Zahar eta Bidebietako osasun-zentroetako eta Bengoetxea kaleko PAC zerbitzuetan, ez eta Donostiako beste inongo zentroetan ere, eta behar diren baliabideak jar ditzala horiek saihesteko.

Donostian, 2023ko azaroaren 29an

Juan Karlos Izagirre Hortelano  
EH BILDU udal taldeko bozeramailea